

# berdink

kultura berdintasunerantz eraldatzen!



Diseinua  
**Gomagula**

Koordinazioa eta testuak  
**Susana Carramiñana**

Ilustrazioak  
**Mamen Moreu**

Kontaktua  
**kultura-hps-berdintasuna@euskadi.eus**  
**945016943**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

## Ongi etorri *berdink* aldizkari digitalera

Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko *berdink* berdintasunerako aldizkari digitala aurkezten dizuegu. *berdink* sailaren

Berdintasunerako Unitate Administratiboaren ekimena da eta helburua emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna artearen, kulturaren, komunikabideen, kultura ondarearen, kirolaren eta hizkuntza politikaren esparruan hedatzea da.

Aldizkaria sei hilean behin argitaratuko da, eta zenbaki bakoitzean, berdintasunaren kulturarekin lotutako gai baten inguruko edukiak plazaratuko dira. Aldizkarian zenbait atal aurki ditzakezue:

Gaiak atala: aldizkariaren zenbakiaren gai nagusia. Lehen zenbaki hau azaroaren 25ean —Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Nazioarteko Eguna— plazaratuko da, eta bertan bortizkeria sinbolikoari buruz hitz egin nahi dugu, kulturaren eta komunikabideen bidez etengabe sortzen den bortizkeria sotila, alegia.

Berbak atala: feminismoarekin lotutako gaien inguruan hitz egingo dugu zenbait aditurekin. Zenbaki honetan Irantzu Varela feminista elkarrizketatu dugu. Ekimenak atala: Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak berdintasunaren kultura sustatzeko garatzen dituen ekimenak, proiektuak eta jarduketak plazaratuko ditugu. Kulturk atalean proposamen kultural feministak aurkituko dituzue. Sortzaileak atala: emakume sortzaile garaikide eta historikoen lana deskubrituko dugu. Amaitzeko, Barrezk atala: emakume marrazkigile edo ilustratzaile batek berdintasunarekin edo feminismoarekin lotutako gaien inguruan umorez eta ironiaz piztuko digu hausnartzeko gogoia. Zenbaki honetan, Mamen Moreu komiki marrazkilariak hartu du parte eta *berdink* lehenengo *berdink*-en azal ikaragarria eta Barrezk atalaren bineta diseinatu ditu.

BerbaK

Feminista,

kazetaria,

emakumeen aurkako

indarkerian aditua

eta Faktoria Lila-ko

koordinatzailea.

# Irantzu Varela



**«Feminismoak lan asko dauka egiteko, baina baita erakundeek ere, harik eta emakumeok erdiak izatera iritsi arte, bai Arte Ederren Museoan, bai literaturan, bai bertsolari txapelketaren finalean»**

aurkako indarkeria sistema oso batek mantentzen du.

Indarkeria sinbolikoaren adibide garbi bat da Estatu Batuetako esklabotza-sistema. Hau ez zatekeen inoiz gertatuko, mirabeek ez bazuten pentsatuko euren egoera normala zela. Bestela, matxinatu egingo ziratekeen. Eta ez litzateke desberdintasunik edo emakumeen aurkako indarkeriarik izango baldin eta ez bagenuke sinetsiko egoera hori dela naturala.

### **Zer esan nahi du *indarkeria sinbolikoa* kontzeptuak?**

Pierre Bourdieuk egin zuen ezagun aurreneko aldiz kontzeptu honen erabilera. Bourdieuk lotu egiten zituen biolentzia sinbolikoa eta zapalduen konplizitatea behar duten eta zapalkuntza hau betiko egiten duten jarrera multzoak, balioak eta jokatzeko moduak. Geroago, feminisмотik garatuz joan da ideia hau. Simone de Beauvoirrek nabarmendu zuen patriarkatua ez litzatekeela existituko emakumeen konplizitaterik gabe, emakumeak alde zapaldua diren heinean. Historikoki, menderatze-sistema guztiek erabili izan duten indarkeria da indarkeria sinbolikoa. Izan ere, jendea ezin daiteke indarrez bakarrik menderatu, indar handia beharko litzatekeelako. Horregatik, menderatze-sistema guztietan beharrezkoa da sare bat, sinesmenak, balioak, egiturak eta ohiturak biltzen dituen, pertsona zapalduen sinestarazteko zapalkuntza gauzen egoera naturala dela. Bide horretan, funtsezkoa da indarkeria sinbolikoa aurrez aurre jartzea, emakumeen aurkako indarkeria ez baita soilik emakumeen aurkako indarkeria fisikoa: erasoak, erailketak, etab. Emakumeen

### **Nola lotzen da indarkeria sinbolikoaren kontzeptua emakumeen aurkako indarkeriarekin?**

Derrigorrezko lotura da. Normalizatuko ez bagenu, gizarte honek ez luke onartuko emakumeek egunero-egunero jasaten duten indarkeria esplizitua eta fisikoa, eta normalizat jotzen dugu, indarkeria sinbolikoak legitimatu egiten duelako. Hau da, ez litzateke onartuko batz besterik Espainiako Estatuan bi emakume erailtzea edo astebururo izaten diren bortxaketak eta sexu-erasoak. Horiek ez lirateke onartuko ez balitz existituko sistema oso bat, sinestarazten diguna normalena dela beldurra izatea, normala dela gure nahiaren aurka ukipenak egitea, normala dela bortxaketa mehatxuak hor egotea... Ez litzateke onartuko baldin eta ez balituzte gizonak konbentzituko emakumeak izaki ahulak garela, sexualizatuak gaudela, eta beren desioen esanetara gaudela. Beraz, ez litzateke emakumeen aurkako indarkeriarik existituko ez balitz indarkeria sinbolikoa egituratzen duen sistema oso bat egongo,

sinestarazten gaituena hau gaitz bat dela, bai, baina aldi berean saihestezina eta normala.

### Zer nolako mekanismo sozialen eta kulturalen bitartez ari da legitimatzen eta betiko bihurtzen indarkeria sinboliko hori?

Guztiaren bitartez: hedabideak, iragarkiak, kultura. Burutik behera gizarte-egitura guztien bitartez. Izan ere, politikan eta erakundeetan ohituta gaude emakumeak gutxiengoa izatera edo ez egotera. Nazio Batuen G8ko argazki bat ikusten dugunean, ministro-kontseilukoa, enpresa pribatukoa..., erabakiak hartu behar diren eremu orotan salbuespena gara emakumeok, eta ohitu egin gara horretara. Hedabideetan, ia beti, biktima gisa, ezkontide gisa, ama gisa, laguntzaile gisa edo sexu-objektu gisa agertzen gara. Iragarkietan sexu-objektu gisa edo kontsumo sari gisa baino ez gara agertzen. Herri-kulturan kontakizunen %99 gizonetzkoenak dira. Eta kalean Hondarribiko Alardean gertatutakoa ikusi besterik ez dago: oraindik orain, 2017an, euren herriko jaietan gozatu besterik egin nahi ez duten emakumeak babestera joan behar gara. Gizarteko zati handi batek uste du bozkatu egin daitekeela emakumeek euren herriko jaietz gozatzeko duten eskubidea. Emakumeok edozein eremutan jostatzeko eta ospatzeko aukera daukagu, pertsonak garen neurrian eskubidea daukagulako. Adibide hau lagin bat baino ez da. Oraindik ere desberdintasuna nagusi den eremu asko daude, naturalizat hartutako kulturen.

**«Ez litzateke emakumeen aurkako indarkeriarik existituko, ez balitz egongo indarkeria sinbolikoaren sistema oso bat, sinestarazten diguna hau gaitz bat dela, bai, baina era berean saihestezina eta normala»**

### Indarkeria sinbolikoari aurre egiteko zer nolako estrategiak jarri ditzakete martxan erakundeek?

Uste dut bidea dela mugatzea eta ahotsik ez ematea oraindik ere gizonetzkoak protagonista diren diskurtsoei eta emakumeak bigarren mailako objektu edo izaki diren diskurtsoei. Indartu behar dituzte ere emakumeek bideratutako proposamen eta eremuak. Gizarte honek falta du oraindik emakumeek idaztea liburu erdiak, edo gutxienez liburu gehienak, istorio erdien protagonista izatea, kultura-eremu guztien epaimahai izatea, ikasgai guztien curriculumaren erdia izatea.... Emakumeok guztiaren erdia izan behar dugu, bestela desberdintasunari bide ematen ari gara, emakumeok gizadiaren erdia baikara. Eta alardearen adibidearekin jarraituz, uste dut

erakunde batek galarazi egin behar dituela emakumeak baztertzeko dituzten adierazpen publikoak. Galarazi egin behar du gizonak festaren erdigune diren manifestazioak, neska bat objektu eta edergarri bakarrik den bitartean. Hain justu ere, erakunde horien erantzukizuna da berdintasuna sustatzea, eta desberdintasuna sustatzen duten eremuek legitimatu egiten dute azkenean emakumeen aurkako indarkeria. Marcela Lagardek esaten zuen: "Zer nahi dugu feministok? Feministok guztiaren erdia nahi dugu". Feminismoak lan asko dauka egiteko, baina bita erakundeek ere, harik eta emakumeok guztiaren erdia izan arte; matematikan, filosofian, Arte Ederren Museoan, literatura curriculumean eta bertsolari txapelketaren finalean.

«Emakumeok guztiaren erdia izan beharra daukagu, emakumeok gizadiaren erdia baikara»

## BarrezK





Kultura eta Hizkuntza Politikako Saileko langileak prestakuntza jasotzen ari dira, kulturaren eta komunikabideen bidez erreproduzitzen den indarkeria sinbolikoa identifikatu eta horri aurre egin ahal izateko.

Saileko Berdintasuneko Unitate Administratiboarentzat estrategikoa da programa eta proiektu kulturalak diseinatzen eta kudeatzen dituztenek eta sailean komunikazioan dihardutenek prestakuntza jasotzea, indarkeria sinbolikoa

# **Indarkeria sinbolikoa detektatzen jakitea, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko**

detektatu dezaten eta uler dezaten hori zeinen lotuta dagoen desberdintasunarekin eta emakumeen aurkako indarkeriarekin. Horregatik antolatu du *Kulturaren eta komunikabideetan indarkeria sinbolikoa identifikatzeko estrategiak* ikastaroa, zeina Faktoria Lilak ematen baitu, Irantzu Varela kazetaria formatzaileen artean dela.

Prestakuntzan parte hartzen dutenak ikasten ari dira nola irudiak erabil daitezkeen desberdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako elementu gisa, baliabideak eskuratzen ari dira emakume sortzaileen ikusezintasunari aurre egiteko, eta kulturaren eremuan emakumeen erreferente berriak ezagutzen ari dira.

Prestakuntzak 20 ordu irauten du, eta 12 parte-hartzaile daude guztira: 8 emakumezko, eta 4 gizonezko, saileko proiektu kulturalen arduradunak eta zuzendariak tartean.

# Feministaldia

Plazandreak plataformak bultzaturiko kultura feministaren jaialdia da Feministaldia.

Aurten, bere XII. edizioan, fobia kontzeptua hartuko du abiapuntu (#Fobia) "besteari" diogun beldurrari buruz hitz egiteko eta pentsatzeko esparru bat eskaintzeko: beldurra desberdina denari, okerrari, arautik kanpo dagoenari, arraroari... Hala, bada, jaialdi feminista dela eta, zenbait aurkezpen, eztabaida, proiektio eta emanaldi izango dira Tabakalera esparruan, astebetez, gai horren inguruan.

[www.feministaldia.org](http://www.feministaldia.org)

**Kultur feminista jaialdia. Azaroaren 27tik abenduaren 3ra. Tabakalera. Donostia.**



# Bidean Ikasia

**Arantza Urretabizkaia (1993-2016). Pamiela Argitaletxea**


1993. urtean hondarribiar emakume talde batek alardean parte hartzea eskatu zuen lehen aldiz. Hain zuzen ere hori da liburu honen abiapuntua. Bizipenen bitartez historia gogor eta garratza eta, aldi berean, eder eta hunkigarria saiaturiko da kontatzen egilea. Idazlearen hitzetan: "Liburu honen helburua da gatazkan ikasi dudana besteentzako baliagarria izatea". Bidean ikasia-k 2017ko Literatur Euskadi Saria jaso du.

Mamen Moreu-k (Huesca, 1985) marrazkigilea eta ilustratzailea da. 2009. urtean argitaratu zituen bere lehenengo umorezko bineta-zerrendak *El jueves* aldizkarian. Izan ere, 2016. urtera arte etenik gabe egon zen argitaratzen aldizkari horretan, eta hortik aurrera astean behin argitaratu zuen *Dolores y Lolo* izeneko seriea (testuak Iván Batty-renak). Gaur egun asteazkenero irakur daiteke seriea. 2014. urtean lehenengo nobela grafikoa argitaratu zuen, *Resaca* izeneko (Astiberri argitaletxea); lan horri esker Ezusteko Egilerako izendatu zuten Bartzelonak 2015eko Komiki Azokan. Orain hurrengo lanarekin ari da buru-belarri: *Desastre* (Astiberri argitaletxea). Laster argitaratuko da. Gidoigile eta komiki marrazkigile lanekin batera ilustrazio-lanak ere egiten ditu.



M a m e n —  
— M o r e u

**Kultura eta Hizkuntza Politika  
Saileko berdintasun aldizkari  
digitala**



**Emakumeen aurkako  
indarkeriari ez**

**No a la violencia  
contra las mujeres**